



GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



TALDE-LANA 1

GAITASUNA

Talde-lana.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, erabakiak hartzea, aldaketara egokitzea, sormena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Helburu komun bat lortzeko, beste pertsona batzuekin integratzeko eta lankidetzan aritzeko gaitasuna bezala definitu daiteke.

HELBURUAK



- Taldearen interesak interes pertsonalen aurretik jartzen jakitea.
- Taldearen zereginetan aktiboki parte hartzea.
- Taldeko kide bakoitzaren ekarpenak maila berean baloratzeta.
- Eskubideak eta betebeharrak partekatzea.
- Tolerantziak jokatu, gatazkak saihestuz.

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau eskuratzeko, beharrezkoa izango da lehiatzea eta partekatzea bereiztea, eta batzuetan ukoegin behar zaien norberaren helburuei edo iritziei. Lankidetzak beharrezkoa izanen da eta horrek eskuzabaltasuna, konpromisoa, prozeduretarako egokitzea, antolaketa, malgutasuna eta gatazkak gainditzea ekarriko ditu.



TALDE-LANA 1

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

635 teknika

DESKRIBAPENA

Dinamika hau arazo bat azkar konpontzeko proposatzen da, taldeak banakotasunak baino ekarpen handiagoa egiten duela erakusteko helburuarekin. Horretarako 6 pertsonaz osatutako taldeak sortzen dira. Ebatzi beharreko arazoa planteatu ondoren, taldeko kide bakoitzak 3 ideia aurkeztuko ditu 5 minutuko epean, ideiak orri batean idatziz.

Bost minutuak bukatutakoan, taldekide bakoitzak hurrengo lagunari pasatuko dio orria, eta hark 5 minutu izango ditu jaso duen orrian beste 3 ideia idazteko. Ezin izango dira inolaz ere taldeko beste kideengandik jasotzen diren ideiak errepikatu, ideia berriak osatu edo inspirazio iturri izan daitezen. Ekintza errepikatu egiten da guztiek beren kideen orriak jaso arte. Une horretan, taldeak 54 ideia izango ditu elkarren osagarri.

Ondoren, ideiak azaldu eta aztertu egiten dira, sortzaileenak eta egingarrienak aukeratuz.

DENBORA-ESTIMAZIOA


Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Banaka lortutako emaitzak.
- Taldean lortutako emaitzak
- Taldearen funtzionamendua.
- Banakako parte-hartze maila.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



TALDE-LANA 2

GAITASUNA

Talde-lana.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, erabakiak hartzea, aldaketara egokitzea, sormena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Helburu komun bat lortzeko, beste pertsona batzuekin integratzeko eta lankidetzan aritzeko gaitasuna bezala definitu daiteke.

HELBURUAK



- Taldearen interesak interes pertsonalen aurretik jartzen jakitea.
- Taldearen zereginetan aktiboki parte hartzea.
- Taldeko kide bakoitzaren ekarpenak maila berean baloratzea.
- Eskubideak eta betebeharrak partekatzea.
- Tolerantziak jokatu, gatazkak saihestuz.

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau eskuratzeko, beharrezkoa izango da lehiatzea eta partekatzea bereiztea, eta batzuetan ukoegin behar zaien norberaren helburuei edo iritziei. Lankidetzak beharrezkoa izanen da eta horrek eskuzabaltasuna, konpromisoa, prozeduretara egokitzea, antolaketa, malgutasuna eta gatazkak gainditzea ekarriko ditu.



TALDE-LANA 2

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Ontzia estualdian

DESKRIBAPENA

Taldeko egoerak ebazteko planteatzen da dinamika, kide batzuek edo guztiek haien planteamendu pertsonalei uko egin nahi ez dietenean.

Jarduera honetan 10 ikaslez osatutako taldeak egiten dira, hondoratzen hasi den ontzi batean bidaiatzen dutenak. Horietako bakoitzak gizarteko kide bat ordezkatu du (irakaslea, polizia, haurra, apaiza, politikaria, ikaslea, ingeniaria, etab.), ikasle bakoitzak aukeratu ahal izango duena persona bideratzaileak emandako zerrenda batetik. Bideratzaileak ere esleitu ahal ditu zuzenean.

Ontzia ondoratu ez dadin, kideetako bat uretara bota beharko da. Txalupa utzi behar duen persona aukeratzeko, bakoitzak hau ez uzteko bere arrazoiak defendatuko ditu, eta ez da onartuko inor bere borondatez botatzea. Itsasoratu behar den persona aukeratzeko erabakia aho batez hartuko da. Pertsona bat botako da itsasora 5 minuturo.

DENBORA-ESTIMAZIOA

Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Ezer ez.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Taldearen funtzionamendua.
- Banakako parte-hartze maila.
- Lankidetzeta-maila.
- Gatazkak sortzea eta haien konponbideak.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.

